

1986-XI-28

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1986.eko azaroaren 28an arratsaldeko hiru t'erdietan, egin du Euskaltzaindiak hileroko bere bilkura. Etorri dira: L. Villasante, P. Altuna, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi, euskaltzainak. J.A. Arana, M. Atxaga, J. Etxaide, J.M. Etxebarria, D. Landart, J.M. Lekuona, J.L. Lizundia, L.M. Mujika eta J.J. Zearreta, urgazleak, J.M. Satrustegi idazkari dela.

J.L. Davant eta J. Haritschelhar goizeko bileran egon dira eta P. Salaburuk ezin etorria adierazi du.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Urriko batzar-agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Hamar t'erdietan hasi da euskaltzain osoen goizeko bilkura. Intzako Damaso aitaren hutsunea betetzeko aurkezpenen denbora bete dela, esan du euskaltzainburuak. Bi dira epe barruan aurkeztutako izenak: Patxi Zabaleta Zabaleta, Leitza-koa, P. Charritton, F. Krutwig eta A. Irigoyen euskaltzainen izenean; eta Juan Apezetxea Perurena, Goizuetarra, F. Ondarra, J. San Martin eta J.M. Satrustegi hirukoteak izenpetuta.

Datorren hileko batzarrean egingo da hautespena.

Urtearen azken batzarre horretan izango dira bi-urteroko kargu berritzeen bozketak ere.

Egunari dagokionez, azken ostirala Eguberri egunean da eta Euskaltzaindiaren batzarrea aurreko ostiralera aurreratzen da; abenduaren 19ra alegia.

Eskuarteko gaiak. Madrilgo Kultur Ministeritzatik jasotako eskariari erantzunez, F. Krutwig izendatu da, 1986.eko "Itzulpen Sariketa Nazionaleko" epaimahairako ordezkari.

Ministeritza berorretako "Liburu eta Bibliotekakako" zuzendaritza orokorretik dator, bestalde, 1986.eko Literatur Sorketa laguntzak banatzeko mahaikide bat izendatzeko eskaria. J. San Martin joango da.

Unibertsitateen Kontseiluko lan talde batetarako Euskaltzaindiko lankide bat eskatzen dute Madrildik. Batzartuen artean bozketa egin ondoren A. Irigoyen jaunak atera du gehiengoa. Bera izango da erakunde honen ordezkari.

Portugaletako Udalak ere itzultzaile lanpostu bat betetzeko epai-mahaian Euskaltzaindiko ordezkari bat egotea eskatzen du. Oraingoz R. Badiola izendatu da, baina hemendik aurrera Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskolaren bidez bete beharko da eginkizun hau.

Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskolaren aurkezpena egin dela Gasteizen, aipatu du J.L. Lizundiak. Eusko Jaurlaritzak irailaren 23an onartutako Dekretu baten bidez sortua da Eskola hau, eta izango duen Aholku Kontseiluan Euskaltzaindia ere barne egongo delakoan, J.L. Lizundia izendatu zen Larraun-Lekunberriko batzarrean ordezkari. Aurkezpenean egon dela esan du.

J. Haritschelhar jaunak "Euskaltzaindiaren estatusa Iparraldean" gaitzat harturik, azken aldi honetan Frantziako agintariekin izan dituen harremanak azaldu ditu. Jakina denez, hiruzpalau aldiz egindako eskariak erantzunik gabe geldituak ziren orain arte. Dirudenez, bi erresumatako arazotzat harturik, balegoke Frantziar Euskal Herriko atal edo zati bezala legeztatzeko biderik. Legez egin omen daiteke. Beste urrats bat liteke, noski, nazioarteko akordio ofizial batetara iristea gero.

Azkue Bibliotekarako bi liburu ekarri ditu Argentinatik Haritschelhar jaunak: *Matxin Burdin*, Martin Fierro-ren euskal itzulpena, eta Iakakortexarenak egindako erdara-euskara *Iztegia*. Eskerrak emango zaizkie bidali dituztenei.

Barcelonako "Liber 86" Nazioarteko IV. Liburu azokan egon zen irailaren 23tik 26ra Euskaltzaindiko batzorde bat eta ekintza horren berri eman dute gaur arduradunek.

1987ko egutegiaren aurre-asmoa aurkeztu du J.L. Lizundiak ohar eta gehigarriak jaso nahian. Hiru mendeurren ditu aurkezleak: martxoaren 15ean *Eskualduna*, Lapurdiko astekariaren sorrerakoa, apirilaren 27an Toribio Etxebarria jaiotzekoa, eta Licenciado Andrés de Poza-k *De la antigua lengua de las Españas* idatzi zueneko 400. urteburua. Eskuartearen ditugun arazoetako Jardunaldiak ere aipu dira. Martxoan Lapurdin egitekotan Eskualdunaren mendeurrena, euskara gaurko komunikabideetan gaitzat har genezakeela, aipatu da.

Batzordeen berri

Lexiko berrikuntza. P. Altuna, I. Sarasola eta M. Zalbidek osaturiko batzordeñoari Lekunberrin eskatu zitzaion lexiko berrikuntza eta bilketa lana bideratzeko proposamen bat ekar zezan. M. Zalbidek aurkeztu du eztabaidagaia. Bilketa lana da, noski, orain proposatzen dena; ez da beraz arau konturik horretan. Lan hau ez du zuzenean Euskaltzaindiak bere gain hartuko; gidaritza edo nolabaiteko

gain-begirada eskatzen zaio. Horretan ari diren pertsona eta elkarteen arteko gauza izango litzateke lanaren ardura.

Bi hilabeteko epea dute euskaltzainek txostena aztertzeko eta urtarrileko batzarrean eztabaidatuko da proposamena.

Gramatika. Gramatikaren bigarren partea argitaratzeko moduan dagoela, aditzera eman du P. Altunak. Hori dela-eta aurkezpena lehen Iruñean egin zen bezala, oraingoan non eta noiz egingo den pentsatzen hastea eskatu du. Maia-tzean Arraten Jardunaldirik egingo balitz aurkezpena ere bertan egiteko eragozpenik ez legokeela, esan da.

Dialektologia. Bergarako UNED-koek Euskaltzaindiaren altasgintzako galdezkiunak argitaratzeko gogoia agertu dutela, esan du J. San Martin jaunak. Ez du inork gaizki ikusten eta baimena ematea erabaki da, lana nondik datorren ipintzeko baldintzarekin.

Txostenak

Balendin Enbeita, bertsolari eta euskaltzain ohorezkoaren hil berria eman du euskaltzainburuak. Zenduaren bizi eta merezimenduei buruz egindako txostena irakurri du J.A. Aranak. Familiaz zetorkion bertsolari sena eta maila gorenean utzi du bere izena. 1984ean argitaratu zuen bere lehen liburua eta egun gutxiengatik ez du ikusi bere bizitza jasotzen duena.

Jon Etxaidek bere txostenean, Etxahunen sortzearen II. mendeurrena dela eta, barkoxtarraren berri nola ikasi zuen agertu du. P. Lhandek emandako hitzaldi batek ireki zizkion begiak. Bizi traketsa aipatu ondoren, bere argitalpenetan Etxahun gipuzkeraz ezagutarazteko izandako neke, kezka eta ibilerak azaldu ditu. Batez ere, urrats asko eman du Barkoxeko bidean.

Amaitzeko, Flarango Nazioarteko Egunen berri emanez J. Orpustan jaunak bidalitako txostena irakurri da. Gaia: "Lur-berri egite eta toponimia mendebaleko eta erdiko Europan: Flaran-eko 8garren ixtorio egun internazionalak".

Eta besterik gabe bukatu da batzarrea.

*Fr. Luis Villasante,
Euskaltzainburua*

*Jose M. Satrustegi,
Idazkaria*